

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

#### **5/2019 Foru Agindua, urtarrilaren 16koa, baimentzen duena Pastor Martín Jimenezen behin-behineko izendapena Aguraingo Udaleko idazkari lanposturako**

Aguraingo Udalak atal honi jakinarazi dio behin-behineko izendapen baten beharra daukala Francisca Irigoien Ostiza udal idazkaria ordezkatzeko hura oporretan egoteagatik.

Horregatik, proposatzen du udal horretan kontratazio eta langileen arduradun lanpostua betetzen duen Pastor Martín Jiménez behin-behineko izendatzea.

128/2018 Errege Dekretuaren 52.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik (128/2018 Errege Dekretua, martxoaren 16koa, zeinaren bidez arautzen baita toki administrazioeko funtzionario estatu osorako gaikuntzadunen araubide juridikoa).

Kontuan hartu da Toki administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko Legeak (27/2013 Legea, abenduaren 27koa) 25. artikuluan xedatutakoa —Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legea (7/1985 Legea, apirilaren 2koa) aldatzen du 27/2013 lege horrek, 92.bis artikulua berria sartuta—, non finkatzen den toki korporazioetan aldi baterako halabeharrezko langileak izendatzeko aginpidetza eremua.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian arautua betez, eta 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan jasotzen diren eskuduntzen ondorioz (52/1992 Foru Araua, Arabako Foru aldundiaren antolamendu, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzkoa), eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Pastor Martín Jiménez behin-behinean izendatzea Aguraingo Udaleko idazkari lanpostuko eginkizunak betetzeko, 2019ko urtarrilaren 2tik aurrera, titularra ez dagoen bitartean oporretan dagoelako, harik eta bueltatu arte.

Bigarrena. Izendapenak aurreko apartatuan adierazitako epean baino ez du izango indarra.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesa dutenei, Gasteizko Udalari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 16a

*Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreekaren Saileko foru diputatua*  
**MARIA PILAR GARCIA DE SALAZAR OLANO**

*Lurralde Oreekaren zuzendaria*  
**IÑAKI GUILLERNA SAENZ**